



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko uztailaren 5a

77. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proposamena igor dezan, Parlamentuan eztabaidatzeko eta onesteko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko haurtzaindegiek “haur eskola” izena har dezaten aurrerantzean. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazio-zuzemenak egiteko elkarropegarritasuna erraztu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko aukerari eta egokitasunari. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte-hartze sozial eta instituzionalerako epe bat ireki dezan Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integralari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat negoziatu dezan Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharritan aurre egin ahal izateko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzarekin negoziatu dezan LTDaren bidez ETB 3 eta ETB 4 ere ikus ahal izan daitezen. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sinatu dezan Justizia Ministerioarekin hilobi komunaren mapa prestatze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan funtzio publikoan sartzeko oposizioak direla eta. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako banku-erakundeekiko alde biko hitzarmenak ezar ditzan, alokairuaren merkatuan higiezin-aktiboak sartze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertzeko lan-taldearen txostenetik heldu diren proposamenak garatu eta abian jar ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze publiko-rako plan bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da luzamendutan ibili gabe NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen titulartasuna bere gain har dezan eta hura konpon dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak iragarritako neurri ekonomikoen aurka azaltzen da Nafarroako Parlamentua. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Estatuko Kanpo Arazoetarako Ministerioari eska diezaion haren kide hondurastarrari exijitzeko ikerketa independente bat egin dezaten 2009ko ekainaren 28tik aitzina gertatutako krimenak eta giza eskubideen urraketak argitze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko ekainaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Datuak esanguratsuak dira, eta zeharo argigarriak. 2007an, zazpiehun emakume nafarrek borondatez eten zuten beren haurdunaldia, eta guzti-guztiek gure erkidegotik kanpo egin behar izan zuten hori. Nafarroan gertatzen den egoera Espainiako Estatuaren osotasunarekin alderatuta atipikoa da, Nafarroako Gobernuak bere moralara inposatzen baitu emakumeek legez daukaten eskubidearen ginetik, eta emakumeak behartzen ditu beste autonomia erkidego batzuetara joatera, hala nola Euskadira, Madrilera edo Aragoira, zertarako eta Nafarroan ere legez ziurtatuta dagoen osasun-prestazio bat izateko.

Paradoxa da ezen, inposaturiko zama moralara gorabehera, Foru Administrazioa dela zerbitzu hori ordaintzen diona hala eskatzen duenari. Alegia, ordaintzen duenaren helburua da Nafarroan indarreko legediaren babesean egin beharko litzatekeena beste erkidego batzuetan egiteko. Eta hori ageriko hipokrisia da.

Egoera horren aurrean, eta emakumeek Espainiako gainerako emakumeen baldintza beretan duten eskubidea defendatzeko, beharrezkoa da legedi argi

eta zehatza taxutzea, interpretazioak egiten ibiltzea galaraziko duena eta osasun-prestazio horiek gure erkidegoan egiazki ematen direla ziurtatuko duena, moralarekin loturiko inolako zamak eragotz ez dezan legearen egiazko betetzea.

Azken batean, kontua da, adibide argigarri batzuk ipintzearen, Corteseko herritar diren emakumeek mugakide den Mallén herrikoen eskubide bera izatea, edo San Adriango herritar diren emakumeek Calahorrrakoen eskubide bera izatea, edo Altsasuko herritar direnek Aguraingokoen eskubide bera izatea, edo Berakoek Irunekoena.

Artikulu bakarra. Aldatu egin da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5.14 artikulua. Honek la geldituko da:

“Gaixotasun fisiko nahiz psikiko guztien osasun-estaldura orokorra edukitzeko eskubidea, legeek ezarritakoaren barruan. Emakumezkoak diren herritarrek, eskubideen subjektu gisa, aitortuak dituzte, Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetearen osasun-prestazioa, betiere legez aurreikusitako baldintzetan.

Osasun-arloko agintariek bermatuko dute zerbitzu hori ematea zerbitzu-sare publikoan eta Nafarroaren osasun-eskualdearen barrenean, berekiak nahiz kanpoan kontratatatuak diren lantalde mediko eta osasuneko bidez, horrela osasun-prestazio hori bermatzeko.

Foru Komunitateko Osasun Administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, aurretik programazio berekia eta aurrekontu-zuzkidura berezia izanda gauzatuko direnak, eta helburu gisa izanen dute arrisku bereziko faktoredun gizarte-taldeak babestea, lan-osasuna bereziki kontuan hartuz”

Xedapen gehigarria. Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, abian jarriko dira foru lege hau erabat aplikatua izateko beharrezkoak diren bitarteko eta antolabide guztiak.

Xedapen indargabetzailea. Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarririk gabe gelditzen dira.

Azken xedapena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den unean bertan.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko ekainaren 24an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2010eko maiatzaren 14ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proposamena igor dezan, Parlamentuan eztabaidatzeko eta onesteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proposamena igor dezan, Parlamentuan eztabaidatzeko eta onesteko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proposamena igor dezan, Parlamentuan eztabaidatzeko eta onesteko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bost hilabeteko epean Parlamentuari aurkez diezaion, eztabaidatzeko eta bozkatzeko, Nafarroako Bidaiari Garraioari buruzko Plan Integralaren proposamena.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko hartzaindegiek "haur eskola" izena har dezaten aurrerantzean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko hartzaindegiek "haur eskola" izena har dezaten aurrerantzean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko hartzaindegiek "haur eskola" izena har dezaten aurrerantzean

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpeko hartzaindegiek "haur eskola" izena har dezaten aurrerantzean, hala ezartzen baita martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazio-zuzemenak egiteko elkarroperagarritasuna erraztu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazio-zuzemenak egiteko elkarroperagarritasuna erraztu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da administrazio-zuzemenak egiteko elkarroperagarritasuna erraztu dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarroperagarritasuna erraztu dezan eta bereziki zabal dezan administrazio-zuzemenak egite aldera, agiriak sinatze aldera edo beste edozein jarduketa egite aldera herritarrek Foru Komunitateko Administrazioa jotzeko balia ditzaketen sistema informatiko guztietara.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko aukerari eta egokitasunari.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko aukerari eta egokitasunari".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko aukerari eta egokitasunari

1. Nafarroako Parlamentuak babesten ditu Hezkuntza ministroak eginiko ahaleginak hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko, Nafarroako irakaskuntza publiko nahiz itunduko zenbait kolektibo eta elkarteren, sindikaturen eta gurasoen elkarteren babesa izan baitu.

2. Nafarroako Gobernuak konpromisoa agertzen du hezkuntza-komunitatearen eta gizartearen eskakizunak kontuan hartzeko, gure hezkuntza-sistemari egonkortasuna emanen dion hezkuntzari buruzko itun bat lortze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte-hartze sozial eta instituzionalerako epe bat ireki dezan Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integralari buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte-hartze sozial eta instituzionalerako epe bat ireki dezan Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integralari buruz"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da parte-hartze sozial eta instituzionalerako epe bat ireki dezan Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integralari buruz

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du parte-hartze sozial eta instituzionalerako epe bat ireki dezan Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integralari buruz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat negoziatzen dezan Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharrizanei aurre egin ahal izateko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat negoziatzen dezan Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharrizanei aurre egin ahal izateko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat negoziatzen dezan Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharrizanei aurre egin ahal izateko

1. Nafarroako Parlamentuak, ondarearen arloan abian dauden edo etorkizun hurbilerako aurreikusitako dauden ekintzak ezertan galarazi gabe, Nafarroako Gobernua premiatzen du Orreagako Udalarekin eta kabildoarekin negoziatu eta, kasua bada, hitzarmen bat sina dezan, eremu monumental horrek eta bere inguruak, erromes eta bidaiarien kopurua gero eta handiagoa izatearen ondorioz, dituzten beharrizan bereziei erantzute aldera.

2. Aurtengoa Donejakueren urte saindua denez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziatzen hori arindu dezan, beharrizan horietako batzuei uda iritsi baino lehen erantzute aldera, garai horretan jende kopurua eta eskakizunak bereziki areagotzen baitira.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzarekin negoziata dezan LTDaren bidez ETB 3 eta ETB 4 ere ikus ahal izan daitezen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzarekin negoziata dezan LTDaren bidez ETB 3 eta ETB 4 ere ikus ahal izan daitezen".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzarekin negoziata dezan LTDaren bidez ETB 3 eta ETB 4 ere ikus ahal izan daitezen

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio negoziata dezala Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Erkidegoan ETB 3 eta ETB 4 ere LTDren bitartez ikusi ahal izan daitezen.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan ETB LTDren bitartez ikusi ahal izateko Eusko Jaurlaritzarekin izan behar dituen negoziatioak erraz ditzala.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Justizia Ministerioarekin hilobi komunena mapa prestatze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Justizia Ministerioarekin hilobi komunena mapa prestatze aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Justizia Ministerioarekin hilobi komunena mapa prestatze aldera

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean, giza esku-bideen arloko nazioarteko legeriaren arabera, hitzarmen bat sina dezan Espainiako Gobernuako Justizia Ministerioarekin, beste autonomia erkidego askok jada egin duten moduan, Nafarroako hobi komunena mapa prestatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean gorpuak lurpetik ateratzeari buruzko protokolo bat prestatzeko, beste autonomia erkidego batzuk jada egin duten moduan. Protokolo horretan, gutxienez, zerbitzu bat jasoko da, Nafarroan fusilatutako pertsonen ahaideei laguntza emateko, bai eta lurretik atera eta ahaideek erreklamatzeko ez dituzten gorpuei irtenbide duin eta errespetuzko bat emateko ere.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan funtzio publikoan sartzeko oposizioak direla eta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan funtzio publikoan sartzeko oposizioak direla eta.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan funtzio publikoan sartzeko oposizioak direla eta

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

a) Funtzio publikoan sartzeko oposizioetan edo administrazio publikoen zerbitzuko langileak hautatzeko prozeduretan edota lekualdatzeak eta langileak hautatzeko bestelako izapideetan, plika itxi-en bidez egiten diren probak prozedurako azkenak izatea.

b) Proba guztien batuketa, bai nortasuna agertuta egiten direnena bai anonimotasuna gordez egiten direnena, oposizioaldia amaitutakoan eta anonimotasuna gordez egitea, halako moduz non hasieran, nortasuna agerian dela, eginiko probak (proba fisikoak, psikoteknikoak eta abar) zenbaki batez edo egokien gertatzen den sistemaren bidez identifikatuko baitira haiekin batu beharreko probekin, alegia anonimotasuna gordez egiten direnekin.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako banku-erakundeekiko aldeko hitzarmenak ezar ditzan, alokairuaren merkatuan higiezin-aktiboak sartze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako banku-erakundeekiko aldeko hitzarmenak ezar ditzan, alokairuaren merkatuan higiezin-aktiboak sartze aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako banku-erakundeekiko aldeko hitzarmenak ezar ditzan, alokairuaren merkatuan higiezin-aktiboak sartzeko aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako banku-erakundeekiko –bankuak eta kutxak– aldeko hitzarmenak ezar ditzan, haiek dauzkaten higiezin-aktiboen zati bat alokairuaren merkatuan sartze aldera, Etxebizitza Ministerioari atxikitako SPAk eta CECAK duela gutxi egin duten moduan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertzeko lan-taldearen txostenetik heldu diren proposamenak garatu eta abian jar ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertzeko lan-taldearen txostenetik heldu diren proposamenak garatu eta abian jar ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertzeko lan-taldearen txostenetik heldu diren proposamenak garatu eta abian jar ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko bide publikoak bizikletek erabiltzeko egokitzea aztertzeko lan-taldearen txostenetik heldu diren proposamenak garatu eta abian jar ditzan, horretarako beharrezkoak diren lege- eta arau- aldaketa eta gainerako prozeduren bidez.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2010-2017 urteetarako Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala jendaurrean jartzeko epea alda dezan eta informazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jendaurrean jartzeko epea aldatu eta luzatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 20 eguneko epean infor-

mazio- eta parte-hartze publikorako plan bat aurkez dezan, bat datorrena Hondakinei buruzko Zuzentarauan, Ingurumenarekin zerikusia duten zenbait plan eta programaren prestaketan parte-hartze publikoa arautzeko neurriei buruzko Zuzentarauan eta Europan eta Estatuan ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeari, parte-hartze

publikoari eta justizia eskuratzeari buruzko araudi osoan ezarritakoarekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazioa zabaltzeko agiri bat presta dezan, hondakinei buruzko proposamen teknikoak laburbilduko dituena, informazio- eta parte-hartze publikoa errazte aldera.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da luzamendutan ibili gabe NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da luzamendutan ibili gabe NUPen Medikuntzako ikasketak ezartzeko elkarrizketak abiaraz ditzan."

Legebiltzarrak 2010eko ekainaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko maiatzaren 14ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen titulartasuna bere gain har dezan eta hura konpon dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepidearen titulartasuna bere gain har dezan eta hura konpon dezan."

Legebiltzarrak 2010eko ekainaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko maiatzaren 21eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak iragarritako neurri ekonomikoen aurka azaltzen da Nafarroako Parlamentua.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuko lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak iragarritako neurri ekonomikoen aurka azaltzen da Nafarroako Parlamentua."

Legebiltzarrak 2010eko ekainaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2010eko maiatzaren 21eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Estatuko Kanpo Arazoetarako Ministerioari eska diezaion haren kide hondurastarrari exijitzeko ikerketa independente bat egin dezaten 2009ko ekainaren 28tik aitzina gertatutako krimenak eta giza eskubideen urraketak argitze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Estatuko Kanpo Arazoetarako Ministerioari eska diezaion haren kide hondurastarrari exijitzeko ikerketa independente bat egin dezaten 2009ko ekainaren 28tik aitzina gertatutako krimenak eta giza eskubideen urraketak argitze aldera."

Legebiltzarrak 2010eko ekainaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2010eko maiatzaren 28ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda